


Kanjiak nola bilatu

Hiztegi honetako kanjiak bilatzeko begiratu behar da ideograma horren **goia** (ezkerreko goia) eta **behea** (eskuineko behea), beste kanjiaren atalak kontutan hartu gabe.



Kanjia aurkitzeko bi urratseko metodoa

1) Ikusi kanjiaren GOIA edo EZKERREKO GOIA

Lau aukera daude: 一 丿 丨 . Marra bakoitza bere horretan edo beste bateri lotuta ager daiteke. Ikusi hiztegiaren aurreko azalaren barrualdea, hor aurkituko dituzu osagai grafikoz osatutako lau lerro, bakoitza bere funtsezko marra motarekin.

Kanjiak sailkatzeko asmoz, osagai bakoitzari zenbaki bat jarri zaio. Adibidez: 丿 3, 一 4, 丨 13, 女 17, 木 18, 丶 28, 月 39 eta abar . Zenbaki hau aurkitzen baduzu, lehen urratsa emana duzu. Osagai gehieneko lauki bakoitzean kanjiaren goiko zati adierazgarrienak ageri dira. Puntuz osatutako marrak adierazten dute ez direla betik agertzen.

2) Ikusi kanjiaren BEHEA edo ESQUINEKO BEHEA

Bederatzi aukera daude: 丶 丨 乙 丿 ㇇ 厶 一

Zerrenda aurreko azalaren barrualdean agertzen da, lehenengo urratsaren taularen alboan. Osagaia beste marra batekin edo gehiagorekin agertzen da. Hor agertzen den zenbakia bigarren urratseko zenbakia da. Adibidez: 𠃉 40, 小 41, 寸 48, 大 63, 目 79 eta abar.

Ezkerreko goiari dagokion zenbakia da lehen zenbakia eta eskuineko beheari dagokiona, berriz, bigarrena. Zenbaki bat bestearen ondoren idazten da. Hiztegian agertzen den sailkapen-zenbaki bakoitzaren barruan, gehienetan kanji bat baino gehiago agertzen da. Kanji horiek GOIA eta BEHEA berdina dute; beste atalak, berriz, desberdinak.

Bi arau daude betik jarraitu beharrekoak

a. Ez izan kontuan 口 eta 凵 osagaiak. Ikusi zer dagoen laukiaren " 口 " barruan eta zer dagoen " 凵 "-ren goiko eskuinean. Adibidez: 困 1262, 個 2177, 道 979, 縫 2755

b. Kanjiaren atal bat hemen " 門 " bildua denean, hartu atal horren behea edo beheko eskuina. Adibidez: 鬪 3848, 欄 1864

Erabilerara ohitzeko modurik onena da hiztegi honetako edozein kanji aukeratzea eta ikustea zergatik daukan sailkapen-zenbaki hori. Horretarako, erreparatu aurreko azalaren barrualdean agertzen den taulari.